

ELKARTEAK:

Bazkideak

BUTXU-BUTXU S.COOP enpresaren negozio-eredua kooperatiba da. Beraz, hasiera batean, proiektua gauzatu dugunok izango gara funtsezko bazkide. Aurrerantzean, behar izanez gero, produktuaren ekoizpena aurrera eramateko, langile talde bat kontratatuko da eta langile horiek ere bazkide izateko aukera izango dute.



- **Bazkideen jarduera**

Enpresari hasiera emateko bazkideok kapital sozial bat jarri beharko dugu, hasieran sortuko zaizkigun gastuak jasateko. Funtsezko bazkideon artean banatuko ditugu enpresaren departamentuetako zuzendaritzak: produkzioa, diseinua, finantzak...

- **Beste enpresekin edo erakundeekin aliantzak**

Hasteko, Bizkaiko Foru Aldundiarekin harremanetan jarriko gara, Ekintzailatza eta Gizarte-berrikuntza programak eskaitzen duen diru-laguntzak jaso ahal izateko.

Funtsezko hornitzaileak

- **Baliabideak eskuratzea**

Aterkiaren gabardina polipropilenoaz egina izango da. Polipropilenoa ekoizteko, birziklatutako botilak erabiliko ditugu, beraz, "Bilboplastik SL" enpresarekin kontaktuan jarriko gara. Enpresa honen bitartez, erreziklatutako plastikoa ekarriko dugu guk geuk polipropilenoa egin eta gabardina ekoizteko.



Makila eta hagaxkak egiteko "Aceros IMS" enpresak altzairu herdoilgaitza hornituko digu. Disenuan zehazturiko neurrietara egokituz ekoiz dezagun.

Kirtena guk geuk ekoiztuko dugu, mekanismo berezi bat beharko baitu. Erabiliko den materiala, lehen hornitzaileetatik lortuko dugu (Bilboplastik SL).